

URUMEAKO Kronika

2016/10/17



PDF

HERNANI Urriak 17



Erakusketan jarriko dute, Argazki Ralliko partehartzaile guztien argazki bana.

[albisteak/SAGARDOETXEA](#)

Sagar Uztako argazkilaria onenei, saria ostiralean

Sagar Uzta jaian, Argazki Rallia antolatu zuen Sagardoetxeak, eta ostiralean egingo du sari banaketa, 19:00etan Sagardoetxean. Urriaren 30era arte, argazki erakusketa egongo da bertan.

ASTIGARRAGA

2016/10/08 00:00 Larunbata

Sagarraren festa ospatu zuen Astigarragak, irailaren 25ean; IX. Sagar Uzta jaia, hain zuzen ere. Eta festaren barruan, Argazki Rallia ere antolatu zuen Sagardoetxeak. Egunean zehar makina bat argazki atera zituzten partehartzaileek, eta argazki bilduma bat aurkeztu zuen bakoitzak. Aurkeztutako bildumen artean, onenak aukeratu ditu Sagardoetxeak


Horiei, Sagar Uztako argazkilari onenei, saria emango die, ostiral honetan. Sagardoetxean egingo dute sari banaketa, arratsaldeko 19:00etan.

Aurreko urtean, Imanol Lorenzoren albumak jaso zuen aurreneko saria, eta Marian Martinenak bigarrena.

Ostiraletik aurrera, partehartzaile guztien argazkiak ikusgai, bi astez

Sari banaketa egiteaz gain, ostiralean bertan jarriko dute argazki erakusketa ere, Sagardoetxean bertan. Egunero izango da aukera, argazkiak ikusteko: astelehenetik larunbatera, goizeko 11:00etatik 13:30etara jarriko dute, eta arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara; eta igandetan ere izango da aukera, goizeko 11:00etatik 13:30etara.

Bi astez egongo da erakusketa Sagardoetxean, urriaren 30ra bitartean. Eta bertan jarriko dituzte, Sagar Uztako Argazki Rallyko argazkiak: sarituen argazki bilduma osoa; eta lehiaketan parte hartu zuten guztien argazki bana ere bai.




Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*



reCAPTCHA erronka ikusteko, eskuratu [onartutako arakatzailerak](#) bat.

Bestela, orri hau ikusi beharko ez zenukeela uste baduzu, egiaztatu Internetera konektatuta zaudela eta kargatu berriro.

[Zergatik egin behar dut hau?](#)

Bidali

Aurreikusi



 PDF

HERNANI
Urriak 17

Puri-Purian

Irakurleen artean, piperrak ... (16)

Bazkarirako, izena emateko ... (4)

Lizeagaren etorkizuna aztertze ... (2)

«Institutuak ez zuen ... (1)

Izen ematea, Pilarika ... (2)

Eskola kirolerako, lan ... (1)

Bilketa sistema berria ... (1)

Larunbatean hasiko da ... (1)

Gida komertziala



Arriatzu

Onddoak, udazkeneko kutixia

Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;
iturgintza, elektrizitatea, pintura,
berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

Telefonoa: 616886660

*Iñigo Royo Masajista. Masajea,
naturopatia, osteopatia, kinesologia,
reiki, homeopatia, akupuntura...
(Agustindarren plaza, 4)*

Telefona: 943332894

+ Ikusi

Tweets por @KronikaNet

Gaur



19°

15°

Bihar



18°

13°

Etzi



17°

10°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Euskara Ari Du Hernani...



Lizeagako jaiak



Lizeagako jaiak



Lizeagako jaiak




Hernani-Cisneros



Ginkana egokitua - Mug...

Azken bideoak



Hernaniko Gazte Olinpiadak 2016



Mahai ingurua, alkategaiekin



Korrika 19 - Hernani / Astigarraga



Korrika Txikia 2015



Uholdeak Urumea bazterretan



Hernanik 1000 urte

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefona: 943 33 08 99 / 688 660 714

E-maila: kronika@kronika.eus

astigarraga@kronika.eus

urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK



Legezko oharra